

## PRENTSA OHARRA – GAZTEEN ARGAZKIAK (2012KO MARTXOA)

### SARRERA

Txosten hau, Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen eta Gazteen Euskal Behatokiaren arteko lankidetzaren emaitza da eta Gazteen Argazkiak bildumaren hamabosgarren alea da. 2012ko urtarrilean aurkeztutako, "Hedabideak" ikerketa monografikoa garatu eta zabaltzen du. Bere helburua hedabideen aurrean gazteriak dauzkan erabilera eta jarrerak aztertzea da. Bi zatitan egituratu da:

- **1. Emaitzak: hedabideen erabilera eta horiekiko jarrerak.** Hemen ikerketan ateratako emaitza guztiak erakusten dira, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 29 urte baino gehiagoko helduen artean konparazioa eginda.
- **2. Azterketa: belaunaldi arteko aldaketa.** Atal honetan datu aipagarrienak nabarmentzen dira, bi ikuspuntutatik deskribatuta: bata, belaunaldien artekoa, hedabideen erabilerari dagokionez gazteen eta helduen artean dauden desberdintasunak azaltzen dituena; bestea, belaunaldiaren barnekoa, gazteen arteko adin-taldeen eta beste aldagai sozio-demografiko batzuen arabera azpi-taldeen arteko desberdintasunak azalerraten dituena.

Bestetik, eranskinean datu guztiak jasotzen dira, 29 urte baino gehiagoko helduenenak zein 15 eta 29 urte bitarteko gazteenak. Azken horienak multzotan banatzen dira, ohiko gurutze-aldagaien arabera: adin taldeak, sexua, euskara maila, ikasketa maila eta 2011ko Batzar Nagusietarako boto-oroimena. Gainera, ikerketa honetarako aldagai espezifiko batzuk sartu dira: hain zuzen ere, hedabideetarako esposizio handia (telebista, egunkariak, irratia, Internet), hedabide tradizionaletarako (telebista, prentsa edo irratia) edo interneterako esposizioa eta gaurkotasun-albisteetaz informatuak egoteko hedabideak maiztasun handiz erabiltzea (telebista, egunkariak, irratia, Internet)

**Ikerketa honen fitxa teknikoa zabaldu den txostenean kontsultatu daiteke. Guztira, EAE osorako 2.968 inkesta egin ziren; horietatik 1.272 15 eta 29 urte bitarteko gazteei dagozkie eta 1.696 30 urte edo gehiagoko pertsoneri. Gazteen laginari dagokion lagin errorea  $\pm 2,8\%$ koa da EAE osorako,  $95,5\%$ eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2011ko urriaren 3a eta 10a bitartean egin zen.**

### LABURPENA

- Interneten erabilerak belaunaldi gazteen eta helduen arteko muga argia ezartzen du.
- Belaunaldi gazteek, Internet batez ere hezteko, denbora-pasatzeko, eta komunikatzeko erabiltzen dute. Helduek, bere aldetik, gaurkotasun-albisteei buruz informatuta egoteko erabiltzen dute, baita entretenitzeko ere.
- Sare sozialen erabilpena oso hedatuta dago gazteriaren artean ( $83\%$ )
- Talde guztiek (gazteek eta helduek) telefonoa aukeratzen jarraitzen dute beste pertsona batzuekin komunikatzeko
- Gazteek gehien erabiltzen duten sare-soziala Facebook da; halere, gazteen artean Tuenti nagusitzen da.

## ONDORIOAK

### 1. BELAUNALDIEN ARTEKO EBAKIA

**Interneten erabilerak** belaunaldi gazteen eta helduen artean muga argia ezartzen du. hedabide sozialek dauzkaten eginkizun tradizionalak kontuan hartuta (entretenez, hezteak eta informatzea), gazteek, helduekin alderatuta, Internet erabiltzen dute nagusiki eginkizun horiek betetzeko, beste hedabide batzuk (telebista, irratia edo egunkariak) baino gehiago.

**Entretenezko**, gazteriak Internet nahiago du (%53); berriz, helduen %16k aukeratzen dute Internet entretenezko.

**Hezteko**, gazteen %70ek Internet aukeratzen dute; aldiz, helduen %35ek aukeratzen dute.

**Informatzeko**, gazteen %41en aldean, helduen %16k aukeratzen dute Internet.

Hilabetez lau hedabidetatik (Internet, telebista, irratia, egunkariak) bat bakarrik erabili ahal izanez gero, gazteen %66k Internet aukeratuko lukete; aldiz, helduek telebista aukeratuko lukete (%47).

Konexioaren maiztasunari dagokionez, azken hilabeteetan Internetera konektatu diren gazteen %81ek, "egunero edo ia egunero" erabiltzen dute eta 29 urtetik gorakoan artean, ostean, %68 konektatzen dira "egunero edo ia egunero".

### 2. BELAUNALDIEN ARTEKO ALDEAK: GAZTEAK-HELDUAK

Belaunaldien arteko alderik adierazgarrienak honako esparru hauetan aurkitzen ditugu:

**-Gaurkotasun-albisteak.** Gazteak (15 eta 29 urte bitartekoak) helduak (29 urtetik gorakoak) baino gutxiago eta maiztasun gutxiagorekin kezkatzen dira gaurkotasun-albisteez. Biek nahiago dute **telebista** informatuak egoteko, baina, gazteen kasuan gutxiago (%43) eta, gainera, Internet aukeratzen dutenen kopurua (%41) antzekoa da. Askoz gutxiago erabiltzen dituzte gazteek egunkariak eta irratia (%10 eta %3, hurrenez, hurren)

**-Internet.** Lehen esan bezala, gazteen Internetetik harremana helduena baino askoz handiagoa da: **gehiago erabiltzen dute eta bere jarrera irekiagoa** eta positiboagoa da. Batez ere, entretenezko eta komunikatzeko erabiltzen dute Internet; helduek, berriz, gaurkotasun-albisteei buruz informatzeko eta entretenezko erabiltzen dute.

**-Sare-sozialak.** Nahikoa **orokortuta** dago sare sozialen erabilera gazteen artean (%83); aldiz, hamar heldutatik bik baino ez dute erabiltzen (%21). Sare sozialak erabiltzen dituzten gazteen %78k Facebook erabiltzen dute eta %73k Tuenti. Sare sozialak erabiltzen dituzten helduen %90k Facebook erabiltzen dute eta %19k Tuenti.

**-Beste pertsonekin komunikatzeko bitarteko erabiliak.** Talde guztiek, oraindik ere, **telefonoa** erabiltzen dute gehien beste pertsonekin komunikatzeko, Interneten erabiltzaileak barne.

### 3. GAZTEEN BELAUNALDI-BARRUKO ALDEAK

Gazteriaren baitan, ezberdintasun nabarmenenak honako hauek izango lirateke:

- **Hedabideen erabilera maiztasuna.** Internetena da kontsumo goiztiarrena, baina adinarekin ez da gutxitzen, baizik eta adinean aurrera egin ahala, beste hedabide batzuk ere erabiltzen hasten dira. Beraz Internet “hedabide bakarra” izatetik “hedabideetako bat” izatera pasatzen da.

Gazteen %42k ez dituzte inoiz edo ia inoiz **paperezko egunkariak** irakurtzen; %23k, aldiz, egunero edo ia egunero irakurtzen dituzte. Adinean aurrera egin ahala egunkariak irakurtzen dituztenen portzentajeak ere gora egiten du, baina 26 eta 29 urte bitartekoen artean ere, heren batek dio ez dituela inoiz edo ia inoiz irakurtzen.

Internet erabiltzen duten pertsonak kontuan hartuta, helduen %59k irakurtzen dituzte egunkari digitalak; gazteen artean berriz, %49k.

Gazteen %37k ez dute inoiz edo ia inoiz **irratia** entzuten eta heren batek egunero entzuten du. Adinean aurrera doazen heinean, igo egiten da irratia entzuten dutenen portzentajea, 26 eta 29 urte bitartekoen artean %42k egunero entzuten dutelarik.

- **Gaurkotasunari buruzko informazioa.** Zenbat eta helduago izan, orduan eta altuagoa da gaurkotasunari buruz informatzeko hiru edo lau hedabide erabiltzen dituztenen portzentajea. Aldiz, zenbat eta gazteago izan, orduan eta altuagoa da gaurkotasunari buruz informatzeko inolako hedabiderik erabiltzen ez duten gazteen portzentajea. Bai hedabide tradizionalak (telebista, prentsa eta irratia) baita Internet ere maiz erabiltzen dituztenak gero eta gehiago dira adinean, euskararen ezagutzan eta ikasketa mailan aurrera egin ahala.

18 urtetik beherakoek gainerakoek baino askoz neurri txikiagoan esaten dute telebistako **albistegiak** ikusten dituztela, eta talde horretakoen %19k ez dituzte inoiz edo ia inoiz ikusten.

-**Hedabideen erabilgarritasun pertsonala.** Gazteenek telebistan batez ere entretenimendua bilatzen dute. Adinean aurrera doazen heinean, entretenimenduz gainera, gaurkotasunari buruzko informazio iturri bezala ere erabiltzen da.

**Internetek** gazteei batez ere entretenitzeko balio die (%61ek bi baliagarritasun nagusien artean aipatu dute), baita beste pertsona batzuekin harremanetan egoteko ere (%54), eta neurri txikiagoan gaurkotasunari buruz informatzeko (%37) eta gauza interesgarriak ikasteko (%24).

- **Sare Sozialak.** Gazteen %83k sare sozialak erabiltzen dituzte. Izan ere, lagunekin komunikatzeko bigarren bide garrantzitsuena da, telefonoaren atzetik. Hala ere, zenbat eta gazteago izan, gehiagok aipatzen dituzte sare sozialak bide nagusi bezala eta gutxiagok telefonoa.

- **Nerabeen berezitasunak. Gazteenak (15-17 urte)** dezente bereizten dira gainerakoengandik (18-29 urte): batez ere entretenimendua bilatzen dute, oso egunkari gutxi irakurtzen dituzte, gainerakoek baino askoz interes gutxiago dute gaurkotasun gaiekiko eta horren barruan batez ere kirol informazioa interesatzen zaie. Sare sozialak oinarritzko bidea dira euren harreman sozialetarako.

Bilbo, 2012ko martxoaren 26a

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen web gunean aurki daiteke: [http://www.euskadi.net/ikerketa\\_soziologikoak](http://www.euskadi.net/ikerketa_soziologikoak) baita Gazteen Euskal Behatokiaren web gunean ere: <http://www.gaztebehatokia.euskadi.net>.